KALE GARBIKETA BEREZIAK ETA ERREFORTZUAK KONTRATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRI ZEHATZAK

1.- XEDEA

Kontratu honen xedea udal kale garbiketa zerbitzuak egin behar dituen garbiketa bereziak bideratzea eta une puntualetan ureztatze zerbitzua indartzea da.

Horrela, garbiketa bereziak egiteko baliabideak, materialak eta pertsonalak, esleituko dira. Enpresa esleipendunak ibilgailuak aproposak zein pertsonal kualifikatua jarriko ditu zerbitzu osoa emanez.

Kontratu hau lote bitan banatzen da.

- 1 lotea.- Garbiketa bereziak
- 2 lotea.- Ureztatze zerbitzuaren errefortzua

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen epea urte bikoa izango. Epe hau beste urte bitan, urtez urte, luza daiteke, gehienez 4 urte betez (2+1+1).

3.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

3.1.- 1 LOTEA - GARBIKETA BEREZIAK

3.1.1.- EGIN BEHARREKO LANAK

Kontratu honen bidez herriko gune erabilienetako zoruak garbitzea lortu nahi da. Lanak, makina dekapatzaile baten bitartez gauzatuko dira, honelako makinak lortzen dituen emaitzak eta etekinak aintzat hartuz.

Beraz, zoru garbigailu/dekapadora baten bitartez eta ur beroa erabiliz, kaleetako garbiketa sakona gauzatuko da.

3.1.2.- BALIABIDEAK

Kontratu hau bideratzeko, enpresa esleipendunak honako baliabideak izan beharko ditu

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

CSV: 07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 31/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/05/2022 12:40:37

EXPEDIENTE :: 2022KON_IRE_0008
Datea: 05/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- CMAR 300 edo antzeko zoru garbigailua (dekapadora)
- Ibilgailu horretarako langile/gidaria

3.1.3.- LANAK EGITEKO EPEAK

Lanak urteko hiru kanpainatan egingo dira. Kanpaina edo esku-hartze bakoitzak 10 eguneko iraupena izango du.

Garbiketak honako sasoietan egingo dira, lanegunetan:

1. Otsailaren lehenengo hamabostaldian.
2. Apirilaren bigarren hamabostaldian.
3. Urriaren lehenengo hamabostaldian.

Edozein kasutan, Bermeoko Udalak unean uneko beharrizanei erantzuteko, data ezberdinak ahal izango ditu adostu enpresa esleipendunarekin, makinaren erabilgarritasuna kontuan hartuta.

3.2.- 2. LOTEA - URETZATZE ZERBITZUAREN ERREFORTZUA

3.2.1.- EGIN BEHARREKO LANAK

Kontratu honen helburua, data jakin batzuetan kale garbiketa zerbitzua indartzea da. Hain zuzen ere, ureztatze zerbitzuak egiten duen lana indartu gura da herriko jaietan.

Enpresa esleipendunak Bermeoko udaleko garbiketa arduradunak egingo duen unean uneko antolaketa jarraitu beharko du, udal taldea errefortzatuz.

3.2.2.- BALIABIDEAK

Kontratu hau bideratzeko, enpresa esleipendunak honako baliabideak izan beharko ditu zerbitzuaren eskura:

- ~8.000 litrodun zisterna-kamioa
- Ibilgailu horretarako gidaria eta eskuzko lanak egiteko peoia

3.2.3. LANAK EGITEKO EPEA

Lanak sasoi ezberdinetan, bideratuko dira. Urtez urte, hauek izango dira zerbitzua emateko datak, balizko kontratuaren luzapenak barne:

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

CSV: 07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 31/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/05/2022 12:40:37

EXPEDIENTE :: 2022KON_IRE_0008
Datea: 05/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

2022			
	Maiatza	Uztaila	Iraila
	-	23	8, 10, 11, 16, 17, 18

2023			
	Maiatza	Uztaila	Iraila
	21	23	7, 8, 9, 10, 16, 17

2024			
	Maiatza	Uztaila	Iraila
	19 edo 26	-	6, 7, 8, 10, 14, 15, 16

2025			
	Maiatza	Uztaila	Iraila
	18 edo 25	-	7, 8, 10, 13, 14, 16, 21

2026			
	Maiatza	Uztaila	Iraila
	24	-	6, 8, 10, 12, 13, 16, 20

Edonola ere, lanak egin orduko, enpresa esleipendunak eta Bermeoko Udalak, urtez urte, data zehatzak adostuko dituzte beharrizanen arabera. Zerbitzua eman behar den urteko jaiegunetan ez da aldaketarik izango, kopuruari dagokionez.

4. ZERBITZUAREN KOSTUA

Egin behar diren aurreikusitako lanen arabera, zerbitzuaren kostu estimatua, urteko, honako hau izango litzateke.

LOTEA	ZIOA	EGUNAK	€/EGUNEKO	GUZTIRA
1 LOTEA	GARBIKETA BEREZIAK	30	949,35 €	28.480,50 €
2 LOTEA	UREZTATZE ERREFORTZUA	8	1.047,16 €	8.377,28 €

Diru kopuru hauek lizitazioaren balio estimatua kalkulatzeko bakarrik erabili dira. Adierazitako kostuek, baliabide guztiak dituzte barne eta jaiegunen zati proportzionala ere daukate jasota.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

CSV: 07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 31/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/05/2022 12:40:37

EXPEDIENTE :: 2022KON_IRE_0008
Datea: 05/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Zerbitzuaren azkeneko kostua enpresa esleipendunak eskainitakoa izango da.

5. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Esleipendunak, azpikontratistek eta lan horietan esku har dezaketen langile orok zorrotz bete beharko dituzte tokiko, autonomiako, estatuko edo Europako lege eta xedapen guztiak, gizarte, lan eta laneko higiene eta segurtasun arloetan, kontratua sinatzen den unean indarrean daudenak, bai eta kontrata egiten den bitartean ager daitezkeen guztiak ere; beraz, langile guztiak behar bezala legeztatuta eta prestatuta egon beharko dira.

Era berean, bere kargura izango ditu lan horietan parte hartzen duten langileen segurtasuna bermatuko duten babes eta seinaleztapen neurri guztiak. Enpresa esleipendunak enpresa-jardueren koordinaziotik eratorritako betebehar guztiak betetzeko konpromisoa hartuko du, administrazio-orri zehatzetan finkatzen den moduan, eta hori egin ahal izateko behar den informazio guztia emango die Udaleko zerbitzu teknikoei.

6. KOMUNIKAZIOAK, KOORDINAZIOA ETA HARTU-EMONAK

Esleipendunak ordezkari bat izendatuko du udal arduradun teknikoarekin koordinatzeko eta komunikatzeko. Horrela, udalak behar duen bezain zehatz jakingo du zer egoeratan eta nola egiten dituen lanak esleipendunak.

Hartu-emon zuzenak izatea baliogarria izango da exekuzioaren edozein alderdi hobetzeko eta hartu beharreko erabakiak finkatzeko.

Ahozko komunikazio jarraituaz gain, idatzizko komunikazio sistematikoa ezarriko da (posta elektroniko bidezko komunikazio digitala), asteko lanak agiri batean (lan-partea) jasotzeko.

7. KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK

Kontratistaren kontura izango dira eskainitako zerbitzuan finkatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren gastu guztiak. Kontratistak bere gain hartuko ditu horrek sortzen dituen gastu guztiak, hala nola langileak, erregaia, ekipoen mantentze-lanak, aseguruak, administrazio- eta kudeaketa-gastuak, tasak, zergak eta ustiapena normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren beste guztiak.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

CSV: 07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 31/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/05/2022 12:40:37

EXPEDIENTE :: 2022KON_IRE_0008
Datea: 05/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Esleipendunak behar diren neurriak hartuko ditu lanak egiten diren bitartean hirugarrenen babesa bermatuta gera dadin, eta bere erantzukizun osokoa izango da lanak egitearen ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak, baldin eta, indarreko xedapen eta legeen arabera, erruduntzat jotzen bada.

Garbiketak egiteko behar diren materia kontsumigarriak (ura eta garbiketa produktuak) Bermeoko Udalak hornituko ditu.

Zerbitzu Saileko teknikaria

Data eta sinadura orri oinean

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

CSV: 07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009D56500U8T0V3A5E3D7

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 31/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/05/2022 12:40:37

EXPEDIENTE :: 2022KON_IRE_0008
Datea: 05/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia